

TXIRRINDULARITZA. Zulle, Basso eta Euskaltel-Euskadiko karreristak atzean geratu ziren haize-babes batean

Alexandre Vinokourov bereganatu du Laurent Jalaberten distira

Telekomeko kazakhstandarrak igoera dotorea egin zuen Mont Faronen, eta maillot horia lortu

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Mont Farongo ailegaera pikoak oilarren arteko lehia eragin zuen, eta lehia horren ostean, ziurra da Paris-Niza bi txirrindulariren artean erabakiko dela: Alexandre Vinokourov (Telekom) kazakhstandarra eta Laurent Jalabert (CSC) frantziarra. Irabaziko ez dutenen artean, Didier Rous (Bonjour), orain arteko liderra, Alex Zulle (Coast) eta Ivan Basso (Fassa Bortolo), hainbat arrazoiengatik.

Etapazaila zen oso, gorabehera askorekin azken tartean, baina borroka aldats gorak hasi aitzin lehertu zen, alde bateko haize bortitza lagun. Haize-babesak sortu ziren, eta horietan Rous liderraren Bonjour taldea aritu zen ongien, azerien. Baita Laurent Jalabert, Vinokourov eta Kivilev ere, besteak beste. Ez ziren behar bezain erne egon, ordea, Paris-Niza irabazteko hautagaietako bi, Alex Zulle eta Ivan Basso. Ezta Euskaltel-Euskadi eta ibanesto.com taldeetako txirrindulariak ere, guztiak onenen taldetxotik urrun geratu baitziren.

Didier Rousek neurrigabeko ausardia erakutsi zuen

Etapako azken 50 kilometroetan lau mendate zeuden. Bonjourrek dotore egin zuen lan bere liderrarentzat, urruneko eraso oro saihestuta. Felix Garcia Casas espainiarrak bakarrik lortu zuen haien zaintzari muzin



Alexandre Vinokourov kazakhstandarra, podiumean, maillot horiarekin, atzo.

egitea. Gogotsu ahalegindu zen Big Mat taldekoa, baina 30-40 segundoko alde txikia atera zuen gehienez. 45 kilometro egin zituen ihesean, baina lau eskas geratzen zirela harrapatu zuen onenen tropelak, Mont Farongo pendiza gogorrenak hasi eta berehala.

Liderraren taldekideek azkar utzi zioten ardura taldeburuari. Horrek ez zion ardura horri uko egin, eta tropel buruan jarri zen aurkakoak beldurtzeko. Ausart jardun zuen Didier Rousek, au-

SAILKAPENAK LAUGARREN ETAPA

1. A. Vinokourov (Telekom)	4.21.54
2. Laurent Jalabert (CSC)	28ra
3. Andrei Kivilev (Cofidis)	32ra
4. S. Casar (La Française)	37ra
5. Jens Voigt (C. Agricole)	45era
7. Aitor Garmendia (Coast)	1.00ra

NAGUSIA

1. A. Vinokourov (Telekom)	17.33.23
2. Laurent Jalabert (CSC)	6ra
3. Didier Rous (Bonjour)	49ra

sartegi, Laurent Jalabertek eraso egin eta ezinean geratu baitzen atzean azkar. Helmugarako hiru kilometro gogor gertzen ziren. Vinokourov, Kivilev, Voigt eta Casar ziren lasterketa buru. Kivilevek bitan tenkatu zuen taldea, baina Jalabertek ondo eutsi zion. Ezin, ordea, Vinokouroven erritmo aldaketarekin. Kilometro eta erdira egin zuen aurrera eta 28 segundoko errenta mamitsua lortu zuen. Sei segundorengatik jantzi zuen maillot horia.

Erik Zabelek irabazi du Tirreno-Adriatico probako lehen saioa

A. U. | DONOSTIA

Erik Zabel alemaniarrak (Telekom) irabazi zuen Tirreno-Adriatico probako lehen saioa (Massa Lubrense-Sorrento, 124 kilometro), esprint itxian. Esprinta bera gabe azken metroetako eroriko arriskutsuak izan ziren eguneko berri nabarmenena.

Zelaian jokatu zen lehen etapa, eta esprinterraren taldeek estuasunik gabe lortu zuten garaipena *volatta*-n (esprinta) erabakitzea. Helmugatik 250 metrora dozena erdi txirrindulari erori zen, Piotr Wadecki eta Antonio Salomeren gorpulek elkar ukitu ostean. Ez ziren bakarrik izan. Fagnini, Cañada, Bettini eta Paoli ere erori egin ziren. Lehen biak ez dira abiatuko gaur, lepaustuia hautsi baitzuten.

Bigarren etapak Sorrento eta Frosinone arteko bidea egingo du (212 kilometro).

SAILKAPENAK LEHEN ETAPA

1. Erik Zabel (Telekom)	3.15.39
2. G. Lombardi (A. Sappone)	d. b.
3. Jan Svorada (Lampre)	d. b.

NAGUSIA

1. Erik Zabel (Telekom)	3.15.39
2. G. Lombardi (A. Sappone)	2ra
3. Jan Svorada (Lampre)	4ra

ERRUGBIA. Super 12ko iazko txapeldunak dihardu indartsuen, eta Hegoafrikako Sharks txapeldunordea azkenaurrekoa da

Australiako ACT Brumbies eta HGB Waratahsek lehen postuari eusteko aukera dotorea dute

Koldo Alduntzin | DONOSTIA

Lau aste dira Hegoafrikako VII. Super 12a hasi zenetik, eta gaur laugarren jardunaldia hasiko da jokatzeko; sailkapeneko buruan Australiako bi talde daude: ACT Brumbies egungo txapelduna eta Hegoaldeko Gales Berria Waratahs (14 puntu). Biek ala biek garaipen errazak lortu zituzten joan zen asteburuan: ACT 38-8 Sharks (Heg.) eta Bulls (Heg.) 19-59 HGB Waratahs.

ACTk eta Sharksek iazko finalaren errebantxa txikia jokatuko du bihar. Bulls azken postuan da 0 punturekin, jokatutako hiru partidak galduta. Waratahsek ere aski norgehiagoka erraza ukanen du Cats-en aurka (Heg.), bihar. Cats zazpi garren da 5 punturekin, Erasmus, Venter eta Vos internazionalak dituen arren.

tu zuten, eta txapeldunek lau entsegu egin zituzten. HGBk, berriz, zazpi entsegu egin zituzten Bulls, Pretorian. ACTn, besteak beste, Miarritzen diharduen Joe Roffek jokatu zuen iaz, baina beste lauzpabost jokalarik garrantzitsurekin batera, Europara jo zuten sasoiaren hasieran. Aitzitik, Pat Howard fitxatu zuten, Ingalaterrako Leicester taldean aritutakoa, baita David Nucifora entrenatzailea ere.

Warathasen aipagarri dira Whitaker eta Matthew Burke giblekoak. ACTk Bulls aurka

jokatuko du bihar. Bulls azken postuan da 0 punturekin, jokatutako hiru partidak galduta. Waratahsek ere aski norgehiagoka erraza ukanen du Cats-en aurka (Heg.), bihar. Cats zazpi garren da 5 punturekin, Erasmus, Venter eta Vos internazionalak dituen arren.

Gaur partida bat jokatuko da soilik: Wellington (Z.B.)-Sharks. Sharks txapeldunordeak neurketa guztiak galdu ditu. Andrews eta Kruger ditu jokalaririk entzutetsuenak. Durbangoek James joko zabalatzailea galdu zuten hasieran; iazko jo-



ACTko George Gregan australiarra erasoan, baloia eskuetan duela.

kalaririk entzutesuena. Laugarren jardunaldiko norgehiagokarik erakargarriena bihar jokatuko dute Stormesek (Heg.) eta

Otagok (Z.B.). Etzi, berriz: Queensland (Aus.) eta Canterbury (Z.B.) ariko dira elkarren kontra 3. posturako lehian.